





# 2017-2018 DENBORALDIKO

Hastear dagoen 2017-2018 denboraldi honetan Hernani Club Rugby Elkartek, porra bat antolatuko du Ohorezko Mailako taldeak etxean jokatuko dituen partiduetan, zaletuek emaitza zein izango den asmatuz, elkarren artean lehia dezaten.

Lehia honen pizgarri, Clubak sariak eskainiko ditu jardunaldi bakoitzean. Honez gain, denboraldian zehar metatuz joango diren puntuen bitartez sailkapen orokor bat ezarriko da lehia parte hartzen duten zaletuen artean. Etxean jokatzen den azken partiduen ostean, sailkapen nagusi honetan nagusi den zaletuak, porraren sari nagusia eskuratuko du: 2018ko maiatzak 12an burutuko den Champions Cup-eko finalerako bi sarrera.





# OINARRIAK:

## 1. PLATAFORMA:

1.1 Porraren jokoa FACEBOOK sare sozialaren bitartez burutuko da. Parte hartzea dohakoia izango da eta parte hartzeko, sare sozial honetan profil bat edukitzea besterik ez da behar.

1.2 Hernani CREren Facebookeko kontuan eta horretarako espreski sortutako harietan egingo diren iruzkinen bitartez hartuko dute parte zaletuek.

1.3 Hernani CREren Facebookeko kontutik kanpo, zein espreski egokitutako harietatik kanpo egindako iruzkinek, ez dute inolako baliorik izango porraren jokoa.

## 2. PARTEHARTZAILEAK:

2.1 Hernani CRE taldeko edozein zaletuk har dezake parte, izan daiteke abonatu zein ez abonatu, jokalaria, Clubeko partaidea,... baldintza bakarra iruzkinetan Cluba bera zein arerioak errespetuz tratatzea izango da.

2.2 Profilak: Zaletu bakoitzak profil bakarrarekin parte har dezake Facebooken. Saria irabaziko balu, profil horren jabea dela frogatu beharko du (nick-a erabiliz gero). Porraren antolatzaileek, pertsona berak profil ezberdinekin parte hartzen duela detektatuko balute, jokitik kanpo edo saririk gabe uzteko eskuduntza izango lukete.





# OINARRIAK:

## 3. JOKATZEKO MODUA:

3.1 Hariak: Hernani CREren Ohorezko Mailako taldearen etxeko partidu bakoitzaren aurretik (egun batzuk aurretik), Clubaren Facebookeko atarian partiduari dagokion porrako haría zabalduko da. Jokorako partehartzaile bakoitzak emaitzaren pronostikoa egin dezake hariaren barruan. Haritik kanpo egindako pronostikoez ez dute baliorik izango.

3.2 Pronostiko kopurua: Parte-hartzaile bakoitzak pronostiko bakarra egin ahal izango du partidu bakoitzean.

3.3 Pronostikoetarako epeak: Pronostikoak egiteko epea haria publikatzen den unean bertan zabalduko da eta partidua hasi baino minutu bat lehenago itxiko da (Partiduaren ordu ofiziala eguerdiko 12:00etan bada, goizeko 11:59 ostean egindako iruzkinak ez dute baliorik izango). Antolatzaileek, partidua hasi ostean iruzkinak editatu direla ikusiko balute, parte-hartzaileak jokotik egozteko eskuduntza edukiko dute (sariduna gertatuz gero saria galduko luke).

3.4 Bikoiztutako pronostikoak: Ez da pronostiko bera birritan onartuko, gertatuko balitz, lehen aldiz egin den pronostikoa bakarrik hartuko da baliozkotzat, eta ondoren egindakoak baliogabe bezala hartuko dira (egin izan ez balira bezala). Arrazoi honengaitik, oso garrantzitsua izango da, pronostikoa egin aurretik, lehenago egin direnak arretaz begiratzea.

3.5 Kalendario ofizialetik kanpo jokotutako partiduak: Beharrak ala bultzatuta (adibidez, uhoaldeak,...etab) , partiduren bat ofizialki etxeko azken partidua beharko lukeena (apirilak 15) baino beranduago jokatu balitz, partidu honek ez luke haririk edukiko, eta ondorioz, ez luke saririk eta sailkapen orokorrerako baliorik izango.





# OINARRIAK:

## 4. PUNTUAKETA

4.1 Partiduko puntuaketak: Partidu bakoitzean ondoren azaldutako puntuak banatuko dira:

Emitza zehatza asmatzeak 10 puntu

Partiduaren irabazlea asmatu eta emitza zehatzarekiko puntu diferentzia txikiena edukitzeak 5 puntu

Partiduaren irabazlea asmatzea 3 puntu

Hernanik egindako puntuak asmatzea puntu 1

Puntu hauek batu egingo lirateke eta batuketa honek erabakiko nor den jardunaldiko irabazlea.

Adibidez: Partidu baten emitza Hernaniren aldeko 22-14 izanik, norbaitek 22-14ko emitza jarri izan balu, 19 puntu eskuratuko lituzke (10+5+3+1).

4.2 Saillapen Orokorra: Partidu bakoitzeko puntuak metatuz joango dira eta puntu horiek saillapen orokorra zehaztuko dute. Hari bakoitzarekin batera saillapen orokorra nola doan azalduko du Clubak Facebookeko kontuan. Parte-hartzaileek alegazioak egin ahal izango dituzte publikoki eta hariaren bitartez, baina azken hitza beti Clubak izango du.

4.3 Enpateak: Partidu bakoitzeko sariaren irabazlea zein sari nagusiaren irabazlea nor den erabakitzeke puntuaketan enpaterik egongo balitz, irabazlea zozketa bitartez erabakiko da. Zozketa Clubean burutuko da eta irabazlea nor den Facebookeko kontuaren bitartez adieraziko da.





# OINARRIAK:

## 5. SARIAK

5.1 Partiduko irabazlea: Hernani CREko Ohorezko Mailako lehen taldeak etxean jokatu duen partidu bakoitzean irabazle suertatzen den parte-hartzaileak, Hernani CREren bi elastiko (lehen eta bigarren ekipaziokoak) jasoko ditu sari gisa (neurriak, uneoro eskuragarri dagoen stockaren arabera izango dira).



5.2 Saillapen Orokorreko irabazlea: saillapen orokorreko irabazle bakarrak (enpaterik balego zozketaz erabakiko da) **2018ko 12an Bilbon ospatuko den Champions Cup-eko finalerako bi sarrera eskuratuko ditu**. Eserlekuen kokalekua, Clubak eskura dituen sarreren arabera izango da.





## OINARRIAK:

### 6. INZIDENTZIAK:

Jokoa garatuz joan ahala aurreikusi gabeko inzidentziarik edo oinarri hauen irakurketa ezberdinen kontraesanik gertatuz gero, Clubaren esku geratuko dira hartu beharreko erabakien eskuduntza guztiak.

